**UROLA GARAIKO UDAL ELKARTEAREN BATZAR OROKORRAK 2015eko MAIATZAREN 19an EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Urretxuko Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hemeretzian arratsaldeko zazpiak direnean bildu da Urola Garaia Udal Elkartearen Batzar Orokorra, Mankomunitatearen lehendakari Oihane Zabaleta Mujika andrea buru dela, hain zuzen ere aurrez deitutako ohiko bilera egiteko. Bilera hau lehen deialdian egin da.

Honako zinegotziak izan dira ekitaldian:

**Ezkio-Itsaso**ko udalekoak: Garikoitz Ayesta Etxaniz, Lourdes Lasa Arbilla, Lourdes Lasa Arbilla, Mikel Igartua Anduaga, eta Ander Unzurrunzaga Idiakez jaun-andreak.

**Legazpi**ko udalekoak: Kepa Urzelai Goitia, Sagrario Etxabe Lasa, Amaia Solanas Ariztimuño, Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Fco.Javier Iraeta Alvárez (19:30), Aitor Madina Murua, eta Roberto Alonso Yebra jaun-andreak.

**Urretxu**ko udalekoak: Unai Badiola Urrate, Jon Altolagirre Askasibar, Idoia Ormazabal Agirre, Jorge Andueza Arrizabalaga, Aitor Otegi Epelde, Itziar Agirre Berriotxoa (19:30), Ion Pol Agirre Berriotxoa, Jon Luqui Albisua, Fco. Javier Martín Mateo eta Luis Angel Téllez Gogorza jaun-andreak.

**Zumarraga**ko udalekoak: Mikel Serrano Aperribay, Ricardo Lozano Landart, Aranzazu González San Vicente, Victoriana Badillo Remedios, Xabier Barriola Zabaleta, Montserrat García González, Iñigo

**ACTA DE LA SESION DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE LA MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA CELEBRADA EL DIA 19 DE MAYO DE 2015.**

En la Sala Capitular del Ayuntamiento de Urretxu, siendo las diecinueve horas del día diecinueve de mayo de dos mil quince, se reúnen, en primera convocatoria, los concejales de los municipios de Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga, convocados por la Presidenta Sra. Oihane Zabaleta Mujika, con el fin de celebrar Asamblea General Ordinaria de la Mancomunidad Urola Garaia.

Asisten al acto los siguientes concejales:

Del municipio de **Ezkio-Itsaso:** Sr@s. Garikoitz Ayesta Etxaniz, Lourdes Lasa Arbilla, Mikel Igartua Anduaga, y Ander Unzurrunzaga Idiakez.

Del municipio de **Legazpi**: Sr@s. Kepa Urzelai Goitia, Sagrario Etxabe Lasa, Amaia Solanas Ariztimuño, Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Fco.Javier Iraeta Alvárez (19:30), Aitor Madina Murua, y Oscar Valbuena Pascual.

Del municipio de **Urretxu**: Sr@s. Unai Badiola Urrate, Jon Altolagirre Askasibar, Idoia Ormazabal Agirre, Jorge Andueza Arrizabalaga, Aitor Otegi Epelde, Itziar Agirre Berriotxoa (19:30), Ion Pol Agirre Berriotxoa, Jon Luqui Albisua, Fco. Javier Martín Mateo, y Luis Angel Téllez Gogorza.

Del municipio de **Zumarraga**: Sr@s. Mikel Serrano Aperribay, Ricardo Lozano Landart, Aranzazu González San Vicente, Victoriana Badillo Remedios, Xabier Barriola Zabaleta, Montserrat García González, Iñigo

Peñagarikano Badiola, Josu Idigoras Eguia, Andoni Ormazabal Amutxategi eta Begoña Pereira Anduaga jaun-andreak.

Bertan izan dira, halaber, Maria José Begiristain Zabalo idazkari andrea, ekitaldiaren fede emateko, eta Edurne Etxezarreta Abasolo kontu-hartzaile andrea.

Lehendakariak bilerari hasiera eman ondoren, gai-zerrendako honako gaiak aztertu dituzte:

**1.- AURREKO SAIOKO AKTA.**

2015eko martxoaren 26ko akta irakurri, eta aho batez onartu dute.

**2.- 2014ko KONTU OROKORRA: ONARPENA.**

Lehendakari andreak kontu hartzaileari hitza eman, eta honek azaldu du Batzorde Eragileak proposatutako Kontu Orokorrak gastu orokorretarako 209.446,05 €ko diruzaintzako soberakina jasotzen duela, eta 112.054,02 €ko aurrekontuko emaitza, eta Diruzaintzako Soberakinaz finantzatutako obligazioengatiko doiketak egin ondoren, 167.895,45 €ko aurrekontuko emaitza ateratzen dela.

Ondoren esan du ezen, bete beharreko helburuak azterturik, aurrekontu egonkortasuna, iraunkortasun finantzarioa eta gastu erregela baitira, azken hau ez dela betetzen, baina plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharrean horren ordezko izan daitekeela Udal Kontu Hartzailetzaren komunikazio hau, baldin eta 2014ko ekitaldia diruzaintzako soberakin eta aurrezki garbi positiboz likidatu baita, horixe baita kasu honetan gertatua.

Peñagarikano Badiola, Josu Idigoras Eguia, Andoni Ormazabal Amutxategi y Begoña Pereira Anduaga.

Asisten también la Secretario, Sra. María José Begiristain Zabalo que da fe del acto, y la Interventora Miren Edurne Etxezarreta Abasolo.

Declarada abierta la sesión por la Presidencia, se pasa seguidamente a tratar los asuntos del Orden del Día siguiente.

**1.- ACTA SESIÓN ANTERIOR.**

Dada lectura al Acta de la sesión celebrada el día 26 de marzo de 2015, la misma es aprobada por unanimidad.

**2.- CUENTA GENERAL 2014: APROBACIÓN.**

La Sra. Presidenta da la palabra a la Sra. Interventora quien expone que la presente Cuenta General propuesta por la Comision Ejecutiva contempla un remanente de la tesorería para gastos generales que asciende a 209.446,05 € y un resultado presupuestario de 112.054,02 € que una vez realizados los ajustes por obligaciones financiadas con Remanente de Tesorería resulta un resultado presupuestario ajustado de 167.895,45 €.

Sigue diciendo que examinadas los objetivos a cumplir, estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto, no se cumple con esta última, pero que en lugar de elaborar un plan económico-financiero, este puede ser sustituido por la presente comunicación de la Intervención municipal, si se ha liquidado el ejercicio 2014 con remanente de tesorería y ahorro neto positivo, como resulta en el presente supuesto.

Eztabaida txiki baten ondoren, Batzar Orokorrak, azaldu direnek aho batez, Urteko Egoera Orriak eta Kontuak eta Kontu Orokorra osatzen duten bestelako eranskinak behar bezala justifikatu direla iritzita, hurrena erabaki du:

LEHENA.- 2014ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea, espedientean dagoen bezala.

BIGARRENA.- Kontu Orokor hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurkeztea, honek guztiaren berri izan dezan eta beharrezko ondorioetarako.

**3.- 1/2015 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA: MANKOMUNITATEAREN FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA BATZAR OROKORRARI.**

Kontu hartzaile andreak azaldu du ezen 1/2015 kreditu aldaketak, soberakina erabiltzearren kredituak txertatzeko modalitatean tramitatu eta bere garaian onartuak, bakar-bakarrik finantza iraunkortasunaren helburua betetzen duela. Hurrena erantsi du ezen kasu honetan ere plan ekonomiko-finantziarioa Kontu Hartzailetzaren komunikazioak ordezka dezakeela, batetik aurrezki garbia eta soberakina positiboak izan direlako eta 2015erako zor publiko eta defizit helburuak betetzen direlako, eta bestetik aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako soberakina erabiltzea delako. Igoera izan duten gastuak urte barruan gauzatuko dira, gastu arruntak direlako eta horien finantzaketa ziurtatuta dagoelako; beraz, ez dute karga osagarririk eragiten etorkizuneko ekitaldietarako. Beraz, Batzarrari aditzera ematen zaio entitatea iraunkorra dela eta behar duen finantzaketa bermatuta dagoela.

Tras un breve debate, la Asamblea General por unanimidad de los asistentes, estimando debidamente justificados los Estados y Cuentas Anuales, así como los Anexos que integran la Cuenta General, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar la Cuenta General correspondiente al ejercicio de 2014, tal y como figura en el expediente.

SEGUNDO.- Rendir esta Cuenta General al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas para su conocimiento y efectos oportunos.

**3.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS EXPEDIENTE 1/2015: COMUNICACIÓN A LA ASAMBLEA RELATIVA A LA SOSTENIBILIDAD FINANCIERA.**

La Sra. Interventora, expone que la modificación de crédito 1/2015 en la modalidad de incorporación de créditos que se tramitó para utilizar el remanente existente, y aprobada en su momento, únicamente cumple con el objetivo de sostenibilidad financiera. Añade que en este caso, también el plan económico-financiero se sustituye por la comunicación de la Intervención porque el ahorro neto y el remanente han sido positivos y se cumplen los objetivos de deuda pública y déficit para 2015 y porque el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria se produce como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería. Los gastos que han sufrido un incremento se ejecutarán dentro del año debido a que se trata de gastos corrientes y su financiación está asegurada, no suponiendo una carga adicional para ejercicios futuros. Por lo tanto, se comunica a la Asamblea que la entidad es sostenible y que su financiación está garantizada.

**4.- FATXADA KONPONTZEKO ETA GALDARA ALDATZEKO UROLA GARAIKO FUNDAZIOAK ESKATUKO DUEN MAILEGUAREN KUOTAK ORDAINTZEKO EMANGO ZAION EKARPENAREN URTEANITZEKO IZAERA ONARTZEA.**

Lehendakari andreak azaldu du planteatzen den proposamena galdara aldatzearekin eta Ugle dagoen eraikineko fatxada konpontzearekin dagoela lotuta; eraikin hori Urola Garaia Udal Elkartearen jabetzakoa da.
Hurrena esan du apirilaren 22ko Batzorde Eragileak, hainbat finantza entitateri -Laboral Kutxa, Banco Sabadell Guipuzcoano, Caixa eta Caja Rural- eskaintzak eskatu ondoren, ontzat eman zuela Laboral Kutxak aurkeztutako proposamena, Ugleri -beronek kontratatuko du mailegua- kreditu pertsonal bat eskaintzen baitio, % 1,6ko interes finkoaz eta zazpi urteko epeaz; Urola Garaia Udal Elkarteak ekarpenak egingo dizkio Urola Garaia Fundazioari, mailegu horri aurre egin ahal izan diezaion.
Horregatik, urte anitzeko kreditu bat onartzea planteatzen da, Ugleri urtean 54.448 € emateko.

Kontu hartzaileak aditzera eman du arauak ezartzen dituen mugak betetzen direla, hau da, konpromisoko edo urte anitzeko kredituak urte berean edo hurrengoan hasi behar duela, eta muga metatua ezin dela ekitaldiko baliabide arrunten % 25 baino handiagoa izan.

Hitzen txanda hasirik, Peñagarikano jaunak azaldu du hau erabaki garrantzitsua dela, eta pozik egoteko arrazoia halaber, denek nahi dutelako eskualdean enplegua sustatu, eta Ugle horretarako tresna bat delako.

Serrano jaunak azaldu du proposamen hau

**4.- CREDITO PLURIANUAL DESTINADO A LA FINANCIACIÓN DE LAS CUOTAS RESULTANTES DEL PRÉSTAMO SOLICITADO POR LA FUNDACIÓN UROLA GARAIA (UGLE) PARA LA REPARACIÓN DE LA FACHADA Y LA SUSTITUCIÓN DE CALDERA.**

La Sra. Presidenta expone que la propuesta que se plantea está relacionada con la sustitución de la caldera y la reforma de la fachada del edificio que ocupa Ugle, que es propiedad de esta Mancomunidad Urola Garaia.
Sigue diciendo que en la Comisión Ejecutiva del 22 de abril, tras haber pedido ofertas a distintas entidades financieras, Caja Laboral, Banco Sabadell Guipuzcoano, Caixa y Caja Rural, se dio visto bueno a la propuesta presentada por Caja Laboral, que ofrece a Ugle, quién será la que concierte el préstamo, un crédito personal al interés fijo del 1,6% y un plazo de siete años, siendo Mancomunidad Urola Garaia quien efectue aportaciones a la Fundación Urola Garaia para hacer frente al mencionado préstamo.
Es por ello que se plantea aprobar un crédito plurianual para aportar a Ugle 54.448 € al año.

La Sra. Interventora informa que se cumplen los límites exigidos por la norma, esto es que el crédito de compromiso o plurianual debe comenzar en el mismo año o en el siguiente, y que el límite acumulado no puede ser superior al 25% de los recursos ordinarios del ejercicio.

Iniciado el turno de intervenciones el Sr. Peñagarikano expone que esta es una decisión importante y motivo de satisfacción dado que todos desean promocionar el empleo en la comarca y Ugle es una herramienta para ello.

El Sr. Serrano expone que también van a

bultzatuko dutela, eta prestakuntzaren eta enpleguaren aldeko apustu sendoa den eskualdeko erakunde hau halaber. Erantsi du ezen, bere iritziz, proposamena berandu samar iritsi dela, uste baitu legegintzaldiaren hasieran plantea zitekeela, aurrekoan Uglek eskatua zuen-eta jada eraikinaren fatxada konpontzea. Dena den iritsi da proposamena, eta kalitatezko enplegua eta prestakuntza bultzatzeko beste modu bat da, oso garrantzitsua gainera.

Jarraitu du esanez PSE-EE Udal Elkartearen alde ari dela egiten, eta Ugleren alde kalitatezko prestakuntza zentrotzat. Horregatik, aurkeztu den urte anitzeko krediturako proposamena onartuko dute, zentroaren beharrak estaltzea ahalbidetuko duelako.

Lehendakari andreak adierazi du pozten dela gai hau denen artean adostu ahal izan delako nahiz, Serrano jaunak esan duen bezala, berandu iritsi den; izan ere den-denak daude prestakuntza eta enpleguaren alde. Erantsi du bere talde politikoak beti egin duela enpleguaren eta Ugleren alde, eta ortoprotesia proiektua abian jarri ondoren uste dutela edukiaren alde egiteko unea iritsi dela jada.

Hitzen txanda amaitu eta Batzorde Eragileak aurkeztutako proposamena botaziora eramanda, aho batez erabaki dute hurrena:

**Lehena.-** Zumarragako Beloki Hiribidean dagoen eraikuntzako fatxada konpontzeko eta galdara aldatzeko Urola Garaiko Fundazioak eskatuko duen maileguaren kuotak ordaintzeko urteanitzeko izaera onartzea, gastua ekonomi ekitaldi batera baino gehiago hedatzen delako eta atalkako egitasmoaren banatu ezin daitekeelako.

**Bigarrena.-** Hasierako izaeraz finkatzen dira aipatutako gastu egitearen ondorengo

apoyar esta propuesta y a esta institución de la comarca que es una apuesta firme por la formación y el empleo. Añade que, a su juicio, esta propuesta ha venido algo tarde porque entiende que se podía haber planteado a principios de legislatura dado que ya en la anterior Ugle había solicitado la reparación de la fachada del edificio. No obstante ha venido y es una forma más, y muy importante, de apoyar el empleo y la formación de calidad.
Sigue diciendo que desde el PSE-EE se está apostando por Mancomunidad y por Ugle como centro de formación de calidad y es por ello que aprobarán esta propuesta de crédito plurianual que se presenta que va a permitir cubrir las necesidades del centro.

La Sra. Presidenta indica que se alegra de que este asunto haya podido ser consensuado dado que todos apuestan por la formación y el empleo, aunque, como ha dicho el Sr. Serrano, haya venido tarde. Añade que su grupo político, siempre ha apostado por el empleo y también por Ugle y que una vez puesto en marcha el proyecto ortoprótesico entienden que es el momento de apostar por el continente.

Finalizadas las intervenciones y sometida a votación la propuesta presentada por la Comisión Ejecutiva, por unanimidad se acuerda:
**Primero.-** Prestar aprobación al carácter plurianual de la aportación de cuotas a la Fundación Urola Garaia para que ésta abone el préstamo destinado a la sustitución de caldera y la reparación de la fachada del edificio sito en Avda. Beloki de Zumarraga, por tratarse de un gasto cuya ejecución se extiende a más de un ejercicio económico y no es susceptible de división en proyectos parciales.

**Segundo.-** Fijar con carácter inicial el siguiente calendario de ejecución del gasto

egutegia eta ondorengo zenbatekoak:

| | |
|---|---|
| 2016 urtea | 54.448 € |
| 2017 urtea | 54.448 € |
| 2018 urtea | 54.448 € |
| 2019 urtea | 54.448 € |
| 2020 urtea | 54.448 € |
| 2021 urtea | 54.448 € |
| 2022 urtea | 54.448 € |

plurianual anteriormente citado y por los siguientes importes:

| | |
|---|---|
| Año 2016 | 54.448 € |
| Año 2017 | 54.448 € |
| Año 2018 | 54.448 € |
| Año 2019 | 54.448 € |
| Año 2020 | 54.448 € |
| Año 2021 | 54.448 € |
| Año 2022 | 54.448 € |

## 5.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Serrano jaunak azaldu du lau urteko ibilbidearen ondotik gauzatu direla oinarria 2008an onartutako plan estrategikoan duten proiektu garrantzitsu zenbait, eta, horrenbestez, martxan jarri direla mankomunitateak bere esku dituen egitura guztiak. Hurrena esan du ezen, guztietan bezala, honetan ere argiak eta ilunak izan direla; argien artean abian jarritako proiektu guztiak nabarmendu ditu, oinarri sendoak lagako baitituzte hurrengo legegintzaldirako. Dena den, talde politiko bati entzun dionari buruzko gogoeta bat egin nahi du, entzuna zera baita, udal aurrekontuaz 250 lanpostu sortzea. Uste du balitekeela, baina formak harritzen du, talde politiko horrek orain arte ez duelako egin eta sekula ez duelako antzekorik planteatu mankomunitate honetan. Arriskutsu deritzo horrelako baieztapenak egiteari, nahiz zumarragarra izaki uler dezakeen, baina galdetzen du non geratzen diren mankomunitatea osatzen duten beste hiru udalerriak. Esan du bere talde politikoak mankomunitatearen eta Uggasaren alde segitzen duela, eta uste du baieztapen horiekin mesederik ez zaiela egiten ez enpleguari ez mankomunitateari berari; horregatik azaldu nahi izan du foro honetan.

## 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El Sr. Serrano expone que tras cuatro años de andadura se han realizado proyectos importantes que tienen su base en el plan estratégico aprobado en el año 2008, poniendo así en marcha todas las estructuras que Mancomunidad tiene en su mano. Sigue diciendo que, como en todas, las legislaturas, en ésta también ha habido luces y sombras, destacando entre las luces todos los proyectos puestos en marcha que dejan bases sólidas para la futura legislatura. No obstante quiere hacer una reflexión sobre lo que ha escuchado a un grupo político: la creación de 250 puestos de trabajo con presupuesto municipal. Opina que podría ser, pero que lo que le sorprende es la forma, cuando ese grupo político no lo ha hecho hasta ahora y nunca han planteado nada parecido en esta Mancomunidad. Entiende peligroso hacer estas afirmaciones, además de que lo puede entender como zumarragatarra, pero se pregunta dónde quedan los otros tres municipios que conforman la Mancomunidad. Afirma que su grupo político sigue apostando por la Mancomunidad y por Uggasa, y cree que con estas afirmaciones se le está haciendo un flaco favor al empleo y a la propia Mancomunidad, cuestión por la que ha querido exponerlo en el presente foro.
Por otra parte el Sr. Serrano trae a colación

Bestetik, Serrano jaunak atera egin du EH Bildu eta EAJk bere programetan egindako planteamendua, Urretxu eta Zumarragarako kirol txartel bat garatzekoa, baina gogorazi du galdu egin dela eskualdeko -Ezkio-Itsaso barne- kirol txartel bat ezartzeko aukera, Foru Aldundiak emandako 25.000 euroko diru laguntza batekin batera. Horregatik harrigarri gertatzen zaio talde horiek biek bere hauteskunde programan jasotzea dagoeneko nolabait egiten ari zen zerbait, are gehiago kontuan harturik EAJk esan zuela Bilduk proiektua aurrera atera ezean azterketa bat egingo zuela; berriro esan du, baina, dena ezerezean geratu dela.

Peñagarikano jaunak azaldu du ezen, bere iritziz, gaur ez dela batzar honetarako deia egin Serrano jaunak azaldutako gaiak eztabaidatzeko, eta legegintzaldia kontsentsuaren bidetik eta eskualdeko prestakuntzarekiko akordio on batez amaitu beharrean, Serrano jaunak berriro egin duela sarritan kritika sortzaile izan zaion azalpen bat.

Erantsi du une honetan ez duela enplegu planaz hitz egingo, baina Serrano jaunari esan dio ez dezala ahantzi plan hori, bi kontratazioarekin, interpretazio zentroko “zuloa estaltzeko” balio izaten ari dela.

Téllez jaunak adierazi du berak amaitutzat emango lukeela saio hau, uste duelako orain aipatu diren gaiak ez direla mankomunitatearen gaiak, alderdien arteko eta udalerrien arteko borrokak ez diren bezalaxe; gainera ez dira ez eskaera ez galdera, eta puntu horretan gaude orain. Gainera, uste du besteekiko errespetua izan behar dela.

Lehendakari andreak, Téllez jaunak esanaren bidetik joz, esan du errespetatu egiten dituela bai Serrano jaunak azaldua bai Peñagarikano jaunak emandako erantzuna,

el planteamiento que en sus programas hacen tanto EH Bildu como PNV de desarrollar un kirol txartela para Urretxu y Zumarraga, pero recuerda que se ha perdido la oportunidad de instaurar una kirol txartela comarcal, incluido Ezkio-Itsaso, y se ha perdido una subvención de 25.000 € otorgada por Diputación Foral. Es por ello que le sorprende que ambas formaciones contemplen en su programa electoral algo que, de alguna manera, ya se estaba haciendo, y ello todavía en mayor medida teniendo en cuenta que PNV dijo que si Bildu no llevaba adelante el proyecto, haría un estudio, pero, reitera, todo ha quedado en nada.

El Sr. Peñagarikano expone que, a su juicio, hoy no se ha convocado esta asamblea para discutir estos temas expuestos por el Sr. Serrano, y que en lugar de finalizar una legislatura con consenso, con un buen acuerdo para con la formación de la comarca, el Sr. Serrano ha vuelto a realizar una exposición que muchas veces se le ha criticado.
Añade que no va a hablar en este momento del plan de empleo, pero dice al Sr. Serrano que no se olvide que este plan, con dos contrataciones, está sirviendo para “tapar el agujero” del centro de interpretación.

El Sr. Téllez indica que él daría por concluida la presente sesión, porque cree que estos asuntos que se han traido a colación no son asuntos propios de Mancomunidad, como tampoco lo son las guerras de partidos ni las de municipios, además de que tampoco constituyen ruegos y preguntas, que es el punto en que nos encontramos, además de que cree que se tiene que tener un respeto hacia los demás.

La Sra. Presidenta recogiendo lo dicho por el Sr. Téllez, dice que respeta tanto lo expuesto por el Sr. Serrano como la

baina uste du mankomunitatearen izaeran dagoela lokalismoak alde batean uztea; ildo honetan aurrera egin behar dela uste du, eta gainera alderdikeriak ahantzi behar direla.

Serrano jaunak gogorazi du gidari bien kontratazioak eskualderako direla, eta uste du zentzu horretan erantzun behar zela.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat eman du bilera, goizeko bederatziak eta hamabost minutu direnean. Eta nik, idazkaria naizen aldetik, aztertu dena eta hartutako erabakiak erasota uzteko akta hau egin eta bertan jasotako guztiaren fede ematen dut.

respuesta del Sr. Peñagarikano, pero cree que si algo tiene la Mancomunidad es que hay que olvidarse de localismos, y opina que hay que seguir adelante en esta línea y, además, olvidarse de partidismos.

El Sr. Serrano recuerda que las contrataciones de las dos guías son para la comarca, y entiende que se tenía que haber respondido en este sentido.

Y no habiendo más asuntos que tratar la Sra Presidenta levanta la sesión siendo las diecinueve horas cincuenta minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados extiendo la presente Acta, de todo lo cual, yo, la Secretario, doy fe.